BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN ETA BARAKALDO, BERANGO, BILBO, ERANDIO, GETXO, LEIOA, PORTUGALETE, SANTURTZI ETA SESTAOKO UDALEN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENAREN LUZAPENA, BIZIKLETAK ALOKATZEKO ZERBITZU PUBLIKOA EZARTZEKO BIZKAIBIZI PROIEKTUA

PRÓRROGA DEL CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE LA DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA Y LOS AYUNTAMIENTOS DE BARAKALDO, BERANGO, BILBAO, ERANDIO, GETXO, LEIOA, PORTUGALETE, SANTURTZI Y SESTAO PARA LA IMPLANTACIÓN DE UN SERVICIO PÚBLICO DE ALQUILER DE BICICLETAS. PROYECTO BIZKAIBIZI

BILDU DIRA

SE REÚNEN

Alde batetik, Sonia Pérez Ezquerra, Garraioak, Mugikortasuna eta Turismoa Sustatzeko Saileko foru diputatua, Foru Aldundiaren 2026ko otsailaren 12ko Erabakiaren bidez eman zaizkion ahalmenen bertutez dihardüela.

De una parte, Dña. Sonia Pérez Ezquerra, Diputada Foral de Transportes, Movilidad y Turismo, actuando en virtud de las facultades otorgadas mediante Acuerdo de la Diputación Foral de fecha 12 de febrero de 2026

Bestetik, Amaia del Campo Berasategi andrea, Barakaldoko Udalaren izenean eta hura ordezkatuz, Udalaren Osoko Bilkurak 2023ko ekainaren 17an egindako 13/2023 zenbakiko bilkura berezian emandako ahalmenen arabera jardunez.

De otra parte, doña Amaia del Campo Berasategi, en nombre y representación del Ayuntamiento de Barakaldo, actuando en virtud de las facultades otorgadas por Acuerdo por el Pleno del Ayuntamiento en sesión especial nº 13/2023 celebrada el 17 de junio de 2023.

Bestetik, Itziar Aginagalde Avedillo andrea, Berangoko Udalaren izenean eta hura ordezkatuz, Udalaren Osoko Bilkurak 2023ko ekainaren 17an egindako ezohiko bilkuran hartutako erabakiak emandako ahalmenen arabera jardunez.

De otra parte, doña Itziar Aginagalde Avedillo, en nombre y representación del Ayuntamiento de Berango, actuando en virtud de las facultades otorgadas por Acuerdo por el Pleno del Ayuntamiento en sesión extraordinaria celebrada el 17 de junio de 2023.

Bestetik, Juan Mari Aburto Rique jauna, Bilboko Udalaren izenean eta hura ordezkatuz, Udalaren Osoko Bilkurak 2023ko ekainaren 17an egindako ezohiko bilkuran hartutako erabakiak emandako ahalmenen arabera jardunez.

De otra parte, don Juan Mari Aburto Rique, en nombre y representación del Ayuntamiento de Bilbao, actuando en virtud de las facultades otorgadas por Acuerdo por el Pleno del Ayuntamiento en sesión extraordinaria celebrada el 17 de junio de 2023.

Bestetik, Aitziber Oliban Gutierrez andrea, Erandioko Udalaren izenean eta hura ordezkatuz, Udalbatzak 2023ko ekainaren 17an egindako bilkuran hartutako erabakiaren bidez emandako ahalmenen arabera jardunez.

De otra parte, doña Aitziber Oliban Gutierrez, en nombre y representación del Ayuntamiento de Erandio, actuando en virtud de las facultades otorgadas per Acuerdo por el Pleno del Ayuntamiento en sesión celebrada el 17 de junio de 2023.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: UFDQ-LUQX-UI0I-KHPK
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Bestetik, Amaia Agirre Muñoa andrea, Getxoko Udalaren izenean eta hura ordezkatuz, Udalaren Osoko Bilkurak 2023ko ekainaren 17an egindako ezohiko bilkuran hartutako erabakiak emandako ahalmenen arabera jardunez.

De otra parte, doña Amaia Agirre Muñoa, en nombre y representación del Ayuntamiento de Getxo, actuando en virtud de las facultades otorgadas por Acuerdo por el Pleno del Ayuntamiento en sesión extraordinaria celebrada el 17 de junio de 2023.

Bestetik, Iban Rodríguez Etxebarria jauna, Leioako Udalaren izenean eta hura ordezkatuz, Udalaren Osoko Bilkurak 2023ko ekainaren 17an egindako ezohiko bilkuran hartutako erabakiak emandako ahalmenen arabera jardunez.

De otra parte, don Iban Rodríguez Etxebarria, en nombre y representación del Ayuntamiento de Leioa, actuando en virtud de las facultades otorgadas por Acuerdo por el Pleno del Ayuntamiento en sesión extraordinaria celebrada el 17 de junio de 2023.

Bestetik, Maria José Blanco Gavieiro jauna, Portugaleteko Udalaren izenean eta hura ordezkatuz, Udalbatzak 2024ko uztailaren 5ean egindako ezohiko bilkuran hartutako erabakiaren bidez emandako ahalmenen arabera jardunez.

De otra parte, doña María José Blanco Gavieiro, en nombre y representación del Ayuntamiento de Portugalete, actuando en virtud de las facultades otorgadas por Acuerdo por el Pleno del Ayuntamiento en sesión extraordinaria celebrada el 5 de julio de 2024.

Bestetik, Karmele Tubilla Artetxe andrea, Santurtziko Udalaren izenean eta hura ordezkatuz, Udalaren Osoko Bilkurak 2023ko ekainaren 17an egindako 7/2023 Erabakiaren bidez emandako ahalmenen arabera jardunez.

De otra parte, doña Karmele Tubilla Artetxe,, en nombre y representación del Ayuntamiento de Santurtzi, actuando en virtud de las facultades otorgadas por Acuerdo por el Pleno del Ayuntamiento en sesión nº 7/2023 celebrada el 17 de junio de 2023.

Beste alde batetik, Gorka Álvarez Martínez, Sestaoko Udalaren izenean eta hura ordezkatuz, Udalbatzak 2025ko apirilaren 4an egindako bilkura berezian hartutako erabakiaren bidez emandako ahalmenen arabera jardunez.

De otra parte, don Gorka Álvarez Martínez, en nombre y representación del Ayuntamiento de Sestao, actuando en virtud de las facultades otorgadas por Acuerdo por el Pleno del Ayuntamiento en sesión extraordinaria celebrada el 4 de abril de 2025.

## AZALTZEN DUTE

## EXPONEN

LEHENENGOA.- Bizkaiko Foru Aldundiaren 2022ko otsailaren 22ko Akordioaren bidez onartu zen Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Barakaldo, Berango, Bilbo, Erandio, Getxo, Leioa, Portugalete, Santurtzi eta Sestaoko udalen arteko Lankidetza-Hitzarmena, bizikletak alokatzeko zerbitzu publikoa ezartzeko. Bizkaibizi proiektua.

PRIMERO.- Por Acuerdo de la Diputación Foral de Bizkaia de fecha 22 de febrero de 2022 se aprobó el "Convenio de colaboración entre la Diputazioon foral de Bizkaia y los ayuntamientos de Barakaldo, Berango, Bilbao, Erandio, Getxo, Leioa, Portugalete, Santurtzi y Sestao para la implantación de un servicio público de alquiler de bicicletas. Proyecto Bizkaibizi".

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: UFDQ-LUQX-UI0I-KHPK
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Hitzarmen horren xedea da sinatzaileen artean bizikleta alokatzeko sistema publiko baten kudeaketa integraleko udalaz gaindiko zerbitzua ezartzeko oinarriak finkatzeko baldintza orokorrak ezartzea Barakaldo, Berango, Bilbo, Erandio, Getxo, Leioa, Portugalete, Santurtzi eta Sestaoko udalerrietan.

Dicho convenio tiene como objeto "establecer los términos y condiciones generales para fijar las bases entre los firmantes para implantar un servicio supramunicipal de gestión integral de un sistema público de alquiler de bicicleta en los municipios de Barakaldo, Berango, Bilbao, Erandio, Getxo, Leioa, Portugalete, Santurtzi y Sestao".

Hitzarmena sinatuta, hiriko eta hiriarteko mugikortasun aktibokoaren kudeaketa publikoaren eraginkortasuna hobetu nahi da, bitarteko eta zerbitzu publikoen baterako erabilera erraztu bizikleta publikoa alokatzeko sistema bat ezarrita, onura publikoko jarduerak egiten lagunduta, aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzko legeria beteta eta efizientzia handiagoa lortuta.

La suscripción del convenio pretende mejorar la eficiencia de la gestión pública en materia de movilidad activa urbana e interurbana, facilitar la utilización conjunta de medios y servicios públicos mediante la implantación de un sistema de alquiler de bicicleta pública, contribuyendo a la realización de actividades de utilidad pública y cumpliendo con la legislación de estabilidad presupuestaria y sostenibilidad financiera, así como buscando la mayor eficiencia.

BIGARRENA.-Hitzarmena 2022ko otsailaren 25ean sinatu zen, eta Bizkaiko Foru Aldundia gaitu zuen hitzarmenak estaltzen duen kontratuaren botere esleitzaile gisa jarduteko.

SEGUNDO.- El convenio se firmó en fecha 25 de febrero de 2022, habilitando a la propia Diputación Foral de Bizkaia a actuar como poder adjudicador del contrato al que da cobertura el convenio.

Dagokion prozeduraren ondoren, 2022ko abenduaren 20an, "Bizkaibizi" Bizkaiko bizikleta publikoaren zerbitzua ezarri, mantendu eta kudeatzeko zerbitzuaren kontratua NEXTBIKE-SAGALES BIZKAIBIZI enpresari esleitu zitzaion (IFZ: U72821762), formalizatu zenetik 2026ko abenduaren 31ra arte.

Tras el correspondiente procedimiento, con fecha 20 de diciembre de 2022 se adjudica el contrato de servicio de implantación, mantenimiento y gestión del servicio de bicicleta pública de Bizkaia "Bizkaibizi" a NEXTBIKE-SAGALES BIZKAIBIZI, con NIF: U72821762 con una duración desde la fecha de su formalización hasta el 31 de diciembre de 2026.

2023ko urtarrilean kontratua formalizatu zenetik, BIZKAIBIZI ABEEak agindutako lanak bete zituen, eta sistema martxan jartzeko beharrezko inbertsioak egin zituen. Hori 2023ko urriaren 16an gertatu zen, Getxoko Bizkaia Zubiaren ondoan antolatutako inaugurazio-ekitaldiaren ondoren.

Desde la formalización del contrato en enero de 2023, la UTE BIZKAIBIZI ha ido cumpliendo con los trabajos encomendados, realizando las inversiones necesarias para la puesta en servicio del sistema, lo que sucedió el 16 de octubre de 2023 tras el acto de inauguración organizado junto al Puente Bizkaia en Getxo.

Zerbitzua ematen hasi zenetik, sisteman izena eman duten erabiltzaileen kopuruak eta metatutako erabileren kopuruak gora egin dute

Desde el inicio de la prestación del servicio, tanto el número de personas usuarias inscritas en el sistema como el número de usos

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: UFDQ-LUQX-UI0I-KHPK
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

etengabe, eta, ondorioz, hilabete gutxitan herritarrek asko eskatzen duten garraiobide bihurtu da, bai hasierako ezarpeneko 9 udalerrietan, bai inguruko beste udalerri batzuetan. Izan ere, 2025eko uztailaren 10ean, kontratuaren aldaketa bat onartu zen, 9 udalerri horietan herritarren zerbitzura jarritako bizikleten kopurua handitzea dakarrena.

acumulados ha mantenido un incremento constante, lo que le ha convertido en pocos meses en un modo de transporte muy demandado por la ciudadanía tanto en los 9 municipios de implantación inicial como en otros municipios del entorno. Tanto es así, que con fecha 10 de julio de 2025 se aprueba una modificación del contrato que implica un aumento del número de bicicletas puestas al servicio de los ciudadanos en los citados 9 municipios.

Gobernu Kontseiluaren 2024ko abenduaren 12ko Erabakiaren bidez, hitzarmena aldatzea erabaki zen, Bizkaiko Lurralde Historikoko udalerri berriak atxikitzeko aukera sartzeko, bai Bilbo Metropolitarreko eremu funtzionalekoak, bai eremu geografiko-funtzional horretatik kanpo daudenak. Horrela, zerbitzu integrala eta berdintasunezkoa emango da foru lurralde osoan. Aldaketa horrek ez dio eragiten jatorrizko hitzarmenaren zazpigarren klausulan ezarritako indarraldiaren zenbaketari eta igarotzeari; izan ere, alde guztiek 2022ko otsailaren 25ean sinatu zuten hitzarmena, eta egun hori bere indarraldiaren zenbaketaren dies a quo gisa mantentzen du.

Mediante Acuerdo de Consejo de Gobierno de fecha 12 de diciembre de 2024, se acordó la modificación del convenio a fin de introducir la posibilidad de adhesión al mismo de nuevos municipios del Territorio Histórico de Bizkaia, tanto pertenecientes al Área funcional del Bilbao Metropolitano como los ubicados fuera de dicho ámbito geográfico-funcional, avanzando hacia un servicio integral e igualitario para todo el Territorio Foral. Dicha modificación no afecta al cómputo y transcurso del plazo de vigencia establecido en la cláusula séptima del convenio originario, el cual, habiéndose firmado por todas las partes el 25 de febrero de 2022, mantiene como dies a quo del cómputo de su plazo de vigencia dicha fecha.

HIRUGARRENA.- Hitzarmenaren zazpigarren estipulazioan, "Hitzarmenaren indarraldea", izenekoa, honako hau adierazten da:

"Hitzarmen honen iraupena lau urtekoa izango da, eta sinatzaileek aho batez adostu ahal izango dute hitzarmena luzatzea, beste lau urterako gehienez, edo hitzarmena azkentzea".

TERCERO.- En la estipulación séptima del convenio, relativa al "Plazo de vigencia" del mismo, se indica:

"El plazo de duración de este convenio será de cuatro años, pudiendo los firmantes, en cualquier momento antes de la finalización de dicho plazo, acordar unánimemente su prórroga, por un periodo de hasta cuatro años adicionales o su extinción".

LAUGARRENA.- Bizkaibizi zerbitzuaren kontratua jarraiko prestazioko zerbitzu-kontratua denez, eta alde sinatzaileek 2022ko otsailaren 25ean sinatu zutenean beren gain hartu zituzten betebeharrei (hain zuzen, Bizkaibizi proiektuaren finantzaketarekin lotura estua dutenak, hitzarmenaren hirugarren klausulak dioen bezala) estaldura

CUARTO.-Tratándose el contrato del servicio Bizkaibizi de un contrato de servicios de prestación sucesiva, y con el fin de seguir dando cobertura convenial a las obligaciones que las partes firmantes asumieron a través de su firma el 25 de febrero de 2022 (y que guardan estrecha relación con la financiación del proyecto Bizkaibizi, tal y como recoge la



Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: UFDQ-LUQX-UI0I-KHPK
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

konbentzionala ematen jarraitzeko, beharrezkoa da luzapenaren indarraldian eta ondorioetan kontuan hartzea ez bakarrik prestazioa amaitzeko data, 2026ko abenduaren 31rako berariaz aurreikusia, baita Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 29.4 artikuluan aurreikusitako legezko aukera ere. Aukera hori legezko luzapenaren aukera izango litzateke, eta, hala badagokio, artikulu horretan jasotako inguruabar faktiko zehatzaren aurrean soilik operatiboa izango litzateke. Jarraian erreproduzitu egingo dugu, aurrekoa behar bezala ulertzeko:

"Aurreko paragrafoetan ezarritakoa gorabehera, kontratu bat amaitzean kontratistak egin beharreko prestazioaren jarraipena bermatzen duen kontratu berria formalizatu ez bada esleipen-prozeduran kontratazio-organoarentzat aurreikusi ezin diren gertakarien ondorioz, eta prestazioa ez eteteko interes publikoko arrazoiak badaude, jatorrizko kontratua luzatu ahal izango da kontratu berria gauzatzen hasi arte, eta, nolanahi ere, gehienez bederatzi hilabetez, kontratuaren gainerako baldintzak aldatu gabe, baldin eta kontratu berriaren lizitazio-iragarkia jatorrizko kontratua amaitu baino gutxienez hiru hilabete lehenago argitaratu bada, edo, esparru-akordio batean edo eskuratze-sistema dinamiko batean oinarritutako kontratu espezifiko batean oinarritutako kontratua izanik, kontratu berriaren eskaintza oinarritua edo espezifikoa aurkezteko gonbidapenak jatorrizko kontratua amaitu baino gutxienez hamabost egun lehenago bidali badira".

BOSTGARRENA.- Aurreko gutia esanda, hitzarmenean aurreikusitako lau urteko epea amaitzear dagoenez, eta kontuan hartuta Bizkaibizi bizikleta publikoaren zerbitzua ezarri, mantendu eta kudeatzeko zerbitzuaren egungo kontratua 2026ko abenduaren 31n amaitzen dela, azken hori barne (kontratuaren karatulako

cláusula Tercera del convenio), es por lo que resulta preciso contemplar en la vigencia y efectos de la prórroga no solo la fecha de terminación de la prestación expresamente prevista para el 31 de diciembre de 2026, sino también la opción legal prevista por el artículo 29.4 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público (LCSP), opción de prórroga legal que resultaría, en su caso, exclusivamente operativa ante la concreta circunstancia fáctica recogida en ese mismo artículo y que ahora reproducimos para su debida comprensión:

“No obstante lo establecido en los apartados anteriores, cuando al vencimiento de un contrato no se hubiera formalizado el nuevo contrato que garantice la continuidad de la prestación a realizar por el contratista como consecuencia de incidencias resultantes de acontecimientos imprevisibles para el órgano de contratación producidas en el procedimiento de adjudicación y existan razones de interés público para no interrumpir la prestación, se podrá prorrogar el contrato originario hasta que comience la ejecución del nuevo contrato y en todo caso por un periodo máximo de nueve meses, sin modificar las restantes condiciones del contrato, siempre que el anuncio de licitación del nuevo contrato se haya publicado con una antelación mínima de tres meses respecto de la fecha de finalización del contrato originario o, tratándose de un contrato basado en un acuerdo marco o un contrato específico en el marco un sistema dinámico de adquisición, se hayan enviado las invitaciones a presentar oferta del nuevo contrato basado o específico al menos quince días antes de la finalización del contrato originario”.

QUINTO.- Dicho todo lo cual, estando próxima la finalización del plazo de cuatro años previsto en el convenio y teniendo en cuenta que el actual contrato de servicios relativo al servicio de implantación, mantenimiento y gestión del servicio de bicicleta pública de Bizkaia “Bizkaibizi”, finaliza el 31 de diciembre de 2026,

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: UFDQ-LUQX-UI0I-KHPK
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

N atala eta kontratuaren laugarren klausula partikularra), alderdien interesekoa da hitzarmenaren luzapena honako klausula hauen arabera formalizatzea.:

incluido éste (apartado N de la carátula del contrato y cláusula particular cuarta del contrato), es por lo que resulta de interés de las partes formalizar la prórroga del convenio con arreglo a las siguientes .

KLAUSULAK

CLÁUSULAS

Bizkaibizi bizikleta publikoaren zerbitzua ezarri, mantendu eta kudeatzeko egungo kontratua 2026ko abenduaren 31n amaitzen denez, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Barakaldo, Berango, Bilbao, Erandio, Getxo, Leioa, Portugalete, Santurtzi eta Sestaoko udalen arteko hitzarmen honen indarraldia 2026ko abenduaren 31ra arte luzatu behar da (azken hori barne).

Dado que el actual contrato relativo al servicio de implantación, mantenimiento y gestión del servicio de bicicleta pública de Bizkaia “Bizkaibizi” tiene como último día de ejecución el 31 de diciembre de 2026, es por lo que procede prorrogar la vigencia del presente convenio entre la Diputación Foral de Bizkaia y los ayuntamientos de Barakaldo, Berango, Bilbao, Erandio, Getxo, Leioa, Portugalete, Santurtzi y Sestao, hasta el 31 de diciembre de 2026 (incluido éste).

Aurrekoa gorabehera, kontratazio-organoak aurreikusi ezin dituen eta esleipen-prozeduraren barruan gertatu diren inguruabarrak direla-eta, ezin izan bada Bizkaibizi kontratu berria formalizatu, eta arrazoi hori dela-eta beharrezkoa bada Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen (SPKL) 29.4 artikuluaren azken paragrafoan jasotako aukerara jotzea, eta horrela gauzatzen bada juridikoki kontratu-mailan, SPKLren 29.4 artikuluan berariaz aurreikusitako kasu horretan bakarrik, hitzarmen honen luzapena egungo Bizkaibiziren kontratua luzatzen den denbora berean lotu eta luzatuko da, SPKLren 29.4 artikuluaren baldintzak eta mugak errespetatuz.

No obstante lo anterior, si por circunstancias imprevisibles para el órgano de contratación y producidas en el seno del procedimiento de adjudicación no se hubiera podido formalizar el nuevo contrato Bizkaibizi, y por esta concreta razón resulte preciso acudir a la opción contemplada por el último párrafo del artículo 29.4 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público (LCSP), y así se acabe materializando ésta a nivel contractual, solo en ese concreto caso expresamente previsto por el citado artículo 29.4 de la LCSP se vincularía la presente prórroga del convenio a la citada prorroga legal del actual contrato Bizkaibizi, por lo que por el mismo tiempo que se prorrogaría el contrato del actual Bizkaibizi, respetando los términos y límites del artículo 29.4 de la LCSP.

Hori esanda, hitzarmen hau 2026ko abenduaren 31ra arte luzatuko da, edo, SPKLren 29.4 artikuluaren arabera, egungo Bizkaibizi kontratuaren legezko luzapena izapidetuko balitz, orduan, luzapen hau hertsiki lotuta geratuko litzateke egungo Bizkaibizi

Dicho lo cual, el presente convenio se prorroga hasta el 31 de diciembre de 2026 o, en el caso de que, en base al artículo 29.4 de la LCSP, se tramitase la prórroga legal del actual contrato Bizkaibizi, entonces, la presente prórroga quedaría estrictamente vinculada a los efectos y

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: UFDQ-LUQX-UI0I-KHPK
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

kontraturako baimendutako luzapenaren ondorioei eta denborari.

tiempo de prórroga autorizada para el actual contrato Bizkaibizi.

Eta, ados daudela adierazteko eta behar bezala jasota gera dadin, aldeek elektronikoki sinatu dute dokumentu hau, eta azken sinatzailearen data hartuko da dokumentu hau formalizatzeko datatzat.

Y en prueba de conformidad las partes firman electrónicamente el presente documento, tomándose como fecha de formalización del presente documento la fecha de la última parte firmante.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: UFDQ-LUQX-UI0I-KHPK
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus